




2019KO LEHEN SEIHILEKO BULETINA



Zalantzarik gabeko identifikazioa

Medikazioaren administrazioa



Medikazioaren banaketa

Txertoak



Antikoagulazioa



ZALANTZARIK GABEKO IDENTIFIKAZIOA

2019KO LEHENEGO SEIHILEKOA

Gertakarien deskribapena

- Identifikazioarekin lotutako 179 gorabeherak.
- Jakinarazpenen % 8,12a dira.
- Identifikatu gabeko laginak edo lagina eta bolantea bat ez etortzea. Beste paziente baten datuak dituzten bolanteak edo txostenak entregatzea. Medikazio okerra ematea.

Analisiaren deskribapena (identifikatutako kausak/lotutako faktoreak)

- **Pazientea:** Arreta ematen dioten profesionalengan konfiantza izan ohi dute, eta ziurtzat jotzen dute haien identifikazioa zuzena dela, eta ez dituzte egiaztatzen ematen zaien dokumentazioko datuak.
- **Zeregina:** identifikazio-protokoloa ez betetzea.
- **Segurtasun-kulturarik eza:** identifikazioa egiaztatzeko ohitura falta; beti pentsatzen da pazientea ondo identifikatuta datorrela.

Gomendioak eta hobetzeko ekintzak

- Pazienteak identifikatzeko protokoloa betetzea: eskumuturrekoa duela, datuak zuzenak direla eta egoera onean dagoela egiaztatzea. Zalantzarik gabeko datutzat hartzen dira: izen-abizenak, jaioteguna eta IKZ.
- Pazienteak ez dira inoiz identifikatuko diagnostikoaren, ohe-zenbakiaren, unitatearen, ospitaleratze-dataren eta abarren arabera.
- Pazientei jakinaraztea zer-nolako garrantzia duen ematen zaien dokumentazioak.
- Asistentzia-ekintza bakoitzean pazientearen identifikazio argia baieztatzea: laginak jasotzea, lekualdatzeak, medikazioa ematea, kirurgia-ekintza, diagnostiko-probak, dokumentazioa, etab.



MEDIKAZIOAREN ADMINISTRAZIOA

2019KO LEHENENGO SEIHILEKOA

Gertakarien deskribapena

- Jakinarazitako gertakarien% 30a (243) medikazioarekin lotuta daude.
- % 20a administraziokoak dira (48):
 - Paziente okerra.
 - Sendagai okerra.
 - Dosi okerra (ponpako fluxu-erroreak, sinadurarik ez izateagatik dosia bikoiztea ...).
 - Bide okerra (ahoko medikazioa, ev ematea ...).

Analisiaren deskribapena (identifikatutako kausak/lotutako faktoreak)

- **Zeregina:** behar bezala administratzeko protokoloa ez betetzea.
- **Segurtasun-kulturarik eza:** 5 zuzenak egiaztatzeko ohitura falta.
- **Botikak:** etiketa nahasiak, isoitxura, antzeko izenak ...

Gomendioak eta hobetzeko ekintzak

- “Botikak Segurtasunez Administartzeko Dekalogo” betetzea.
- Egiaztatu 5 zuzenak: pazientea, medikamentua, dosia, bidea eta ordua.
- Infusio-abiaduran hamartarrak kentzea, ezinbestekoa ez bada.
- Ponpetan bi parametro sartu (abiadura eta denbora) eta hirugarrena egiaztatu (bolumena).
- Pazienteei ematen diegun medikazioaren berri ematea.
- Ahotik hartzeko botikak emateko xiringa endobenosoak ez erabiltzea.
- Arreta berezia jarri behar da etiketen irakurketan, hornidurarik eza dela eta etengabe egiten diren aurkezpen-aldaketen aurrean.



MEDIKAZIOAREN BANAKETA

2019KO LEHENENO SEIHILEKOA

Gertakarien deskribapena

- Jakinarazitako gertakarien % 30a (243) medikazioarekin lotuta daude.
 - % 16a dispentsaziokoak dira (38):
 - Etiketak nahastuta farmaziatik: zalantzak dosietan.
 - Agindutako farmako baten dosi okerra.
 - Isoitxurako, antzeko izenagatiko edo hurbiltasunagatiko birjarpen edo banaketa okerra.

Analisiaren deskribapena (identifikatutako kausak/lotutako faktoreak)

- **Antolakuntzakoak:** leku falta.
- **Inguruneakoak:** zarata-maila eta ohiko etenak.
- **Botikak:** etiketa nahasiak, ontziak edo antzeko izenak.

Gomendioak eta hobetzeko ekintzak

- Farmazia teknikari berriak EOS medikazioa prestatzean prestatzea.
- Etenaldiak eta zarata murrizteko neurriak ezartzea.
- Arreta berezia jartzea etiketen irakurketari, hornidurarik eza dela-eta etengabe egiten diren aurkezpen-aldaketen aurrean.



MEDIKAZIOAREN PRESKRIPZIOA

2019KO LEHENENGO SEIHILEKOA

Gertakarien deskripzioa

- Jakinarazitako gertakarien% 30a (243) medikazioarekin lotuta daude.
- % 64,6a preskripziokoak dira (157):
 - Kontsulta baten, larrialdietara egindako bisitaren, ospitaleratzearen edo altaren ondoren eguneratzerik eza edo preskripziorik eza.
 - Dosi okerrak edo emateko bide okerrak dituzten botikak agintzea.
 - Hasiera edo amaiera data okerrak dituzten sendagaien preskripzioa.
 - Gaizki preskribatutako sendagaiak aldatzeko oharrak erabiltzea.

Analisiaren deskribapena (identifikatutako kausak/lotutako faktoreak)

- **Pazientea:** paziente pluripatologiko konplexua igoera, preskripzio-kopuru handiarekin.
- **Prestakuntza:** programa informatikoa erabiltzea.
- **Komunikazioa:** profesionalen eta pazienteen artean, estamentu desberdinetako profesionalen artean eta asistentzia-maila desberdinetako profesionalen artean.

Gomendioak eta hobetzeko ekintzak

- Medikazioa pazienteekin uztartzea laguntza-eskualdatze bakoitzean.
- "e-Osabide" eta "Presbide" maneiatzen trebatzea.
- Preskripzio egoki baten garrantziari buruzko sentsibilizazio-estrategia bat garatzea.



TXERTOAK

2019KO LEHENENGO SEIHILEKOA

Gertakarien deskripzioa

- Txertoekin lotutako akatsak.
- Txerto zuzenaren serotipo okerra (kanpoko farmaziatik emana).
- Txerto okerra.
- Txertoa berrerratu gabe ematea.

Analisiaren deskribapena (identifikatutako kausak/lotutako faktoreak

- **Giza baliabideak:** asistentzia-presio handia, kontsultaren atzerapenak.
- **Profesionala:** ziurtzat jotzen da pazienteak txerto zuzena ekartzen duela.
- **Zeregina:** indarrean dauden eta jaiotze-dataren arabera desberdinak diren txertaketa-egutegi bat baino gehiago egotea.

Gomendioak eta hobetzeko ekintzak

- Datuak beti egiaztatu, administratu aurretik.
- Txertoen biltegiatzea berrantolatzea.
- Biltegian txertoak identifikatzeko etiketak sortzea.
- Profesionalak prestatzea "Haurren eta helduen txertaketa eguneratzeko".
- Osabide Global-en txertaketa egiaztatzeke zerrendaren proposamena egitea.



ANTIKOAGULAZIOA

2019KO LEHENENGO SEIHILEKOA

Gertakarien deskripzioa

- Antikoagulatzaileekin lotutako medikazio-akatsak:
 - Diskordantzia dosian. Sintrom 4mg-koa, 1mg-ren ordezkari edo alderantziz.
 - Data okerraren kontrola bidaltzea.
 - Pazienteei pautak ez ematea altan, edo eguneratu gabeko bat ematea.
 - e-Osabide-n ez eguneratzea edozein antikoagulazio-jarraibidea.
 - Administrazioa, eguneratu gabeko orri inprimatuaren arabera.

Analisiaren deskribapena (identifikatutako kausak/lotutako faktoreak)

- **Zeregin-faktoreak:** jarraibidea adierazten duenak ez du preskripziorik egiten.
- **Komunikazio-faktoreak:** kontrol bakoitzaren osteko jarraibidea eguneratzeko (hematologia-erizaintza-mediku arduraduna).
- **Botika-faktoreak:** arrisku handikoak eta etengabe aldatzen direnak.

Gomendioak eta hobetzeko ekintzak

- Inprimatu sintromaren informazio-orria kontrola ateratzeko eta alta emateko bakarrik.
- Egiaztatu beti dosia, 4mg edo 1mg-koa den hematologia-orrian.
- Erizaintzako alta-txostenean hurrengo kontrolaren data gehitzea.
- Pazienteei sintromaren jarraibide berria ematea, alta eman edo aldatu ondoren.